



EBAZPENA, NATURA ONDARE ETA KLIMA ALDAKETAKO ZUZENDARIARENA,  
JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA SUSTATZEKO DEKRETUAREN PROIEKTUA SORTU AURRETIK  
KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO DENA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egokitzen du jasangarritasunerako hezkuntza sustatzeko xedapen orokor bat sortzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua 1. apartatuaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin baino lehen, kontsulta publiko bat egin behar da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, etorkizuneko arauaren eragina gehien sumatuko duten norbanako eta antolakunde esanguratsuenen iritzia biltzeko gai hauen gainean:

- a) Ekimenaren bitartez zer arazo konpondu nahi diren.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauak zer helburu dituen.
- d) Zer beste aukera dauden, araudiaren esparruan zein arauditik kanpo.

Hori dela eta, aurretiko kontsultarako izapidea bete nahi da xedapena egin baino lehen, arauaren eraginpeko herritarrek eta erakundeek parte hartzeko eta aruari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Beraz, kontsultak ezaugarri hauek izango ditu:

- Egitekoa den arau horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei ireki zaie, bai eta antolakunde, entitate eta elkarteei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren webgunean argitaratuko da.



**EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA**

Ingurumen Jasangarritasuneko  
Sailburuordetza  
Natura Ondare eta Klima Aldaketa  
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y  
MEDIO AMBIENTE**

Viceconsejería de Sostenibilidad  
Ambiental  
Dirección Patrimonio Natural y Cambio  
Climático

- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten.

Orain, kontsulta publikoaren izapide hori egingo da, beraz, aurreikusitako lege-eskemari jarraikiz. Proiektu arauemailea osatu aurretik egingo da, gainera, eta abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoak, 4. eta 5. artikuluetan arautzen duen hastapen-fasearen barnean.

Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

**EBAZTEN DUT**

Lehena. - Kontsulta publikorako jartzea Jasangarritasunerako hezkuntza sustatzeko xedapen orokor baten proiektua, xedapen hori eratu aurretik.

Bigarrena. Arauak ukitutako herritarrek eta eragileek, horrenbestez, aginduaren eranskinean jasotako alderdiei buruzko iritzia helaraz dezakete hamar egun balioduneko epean, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, .....(e)ko.....aren.....(a)

Sinatua: ADOLFO URIARTE VILLALBA  
Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria



## ERANSKINA

## 1.- EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

NBEko idazkari nagusiak, Antonio Guterresek, «klima-larrialdiko egoera» aitortzeko eskatu zien gobernuei 2020ko abenduaren 12an, Parisko Akordioaren bosgarren urteurrena ospatzeko goi-bilera birtual baten hasieran.

Europako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 19ko Ebazpenean, klima- eta ingurumen-larrialdia aitortu zuen, eta Batzordeari, estatu kideei eta erakunde orokorrei eskatu zien klima-aldaketari aurre egiteko eta hura geldiarazteko beharrezko ekintza zehatzak egin zitzatela.

Eusko Legebiltzarrak, legebiltzar-talde guztien babesarekin, klima-larrialdiko egoera aitortu zuen 2019ko irailaren 26an, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zion 2020ko aurrekontuetan sar zitzala beharrezko partida guztiak, klima-egoera horrek eskatzen duen «anbizioa eta urgentzia» ahalbidetzeko ekintza sektorial guztiak abian jartze aldera. Adierazpenean nabarmentzen denez, klima-aldaketaren aurkako borroka mundu-erronka bat da, eta guztioi dagokigu geure gain hartzea borroka horren ardura. Euskadi erronka horren buru izan daiteke, eta beharrezkoa den eraldaketaren buru izan, bestelako ekonomia bat garatzeko, lehiakorragoa izan dadin eta klimari dagokionez neutroagoa.

Ildo horretatik, Europako Batzordeak Europako Itun Berdea aurkeztu zuen 2019ko abenduaren 11ko Komunikazioan. Jakinarazpen horretan ezartzen da, besteak beste, Itun Berdea Batzordearen Hitzarmenaren parte dela, Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak aplikatzeari gagozkiola.

Euskadiren susperraldirako eta erresilientziarako euskal programak –*Euskadi Nextek*– aldarrikatzen du egungo testuinguruan gero eta arreta handiagoa jarri behar zaiola hezkuntzari, eta, inoiz baino gehiago, jasangarritasunerako hezkuntzari; izan ere, prozesu hori ezin da egon soil-soilik pertsonen bizitzako lehen urteetara mugatuta, baizik eta etengabeko arreta eskatzen du, bizi-ziklo osoan zeharrekoa (bizitza osoko ikaskuntza).



## 2.- ZEIN BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN ARAUA ONARTZEA

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, eta gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren esparruetan giza garapena bultzatzea du helburu. Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek (GJH) eta horiek garatzeko 169 jomugek izaera integratua eta zatiezina dute, eta garapen jasangarriaren hiru alderdiak biltzen dituzte (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).

Itun Berdearen esparruan, Batzordeak konpromisoa hartzen du koordinazio makroekonomikorako Europako Sei hilekoaren prozesua berriz bideratzeko, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak txertatzeko eta herritarren jasangarritasuna eta ongizatea politika ekonomikoaren erdigunean kokatzeko, eta Garapen Jasangarrirako Helburuak, berriz, EBren politikak eta ekintza lantzeko erdigunean.

Nazio Batuen Erakundearen ustez, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari dagokionez, hezkuntza ezinbesteko baliabidea da nola garapen indibidual eta kolektiborako, hala gizarte-kohesiorako eta herritarren bizikidetzarako. Gainera, bidezkoagoa izango den gizarte batera aldatzeko bidean hezkuntzak jasangarritasunaren kulturaren esparruan funtsezko eginkizuna duela deritzo.

Bestalde, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren ardatza Gobernu Programaren barnean GJHekin lotura estuagoa duten helburu eta konpromisoak dira, eta horrenbestez, jarraipen espezifikoak egingo zaie helburu eta konpromiso horiei Agendak berak ezarritako gobernantza-baliabideen eta -bitartekoen medioz. Agendaren jomugei dagokienez, ingurumen-hezkuntzako politikak indartu nahi dituen da nabarmengarrienetako bat, herritarrek ingurumena babesteko eta kontserbatzeko duten erantzukidetasunean aurrera eginez betiere.

Dekretu honen bidez, jasangarritasunerako hezkuntzako politikak indartu nahi dira, eta horretarako, herritarrek ingurumena babesteko eta kontserbatzeko zereginean duten erantzukidetasunean aurrera egin, jasangarritasunerako hezkuntzaren esparruan lankidetzak sustatu, koordinatu eta gauzatu, eta arreta eraldaketa-ekintza ekosozialean ipini.



Beraz, jauzi kualitatibo bat ematen da, eta, horrenbestez, ekintzen kalitatea hobetzean jarri behar da arreta, benetan hezkuntza eraldatzaileaz hitz egin ahal izateko.

Horixe da Dekretua argitaratzean lortu nahi den lehentasunezko helburua: jasangarritasunera bideratutako antolaketa- eta hezkuntza-kalitatearen eredu berriak garatzeko bideak aktibatzen laguntzea, hain zuzen.

### 3.- ARAUAREN HELBURUAK

- 1.-Garapen jasangarrirako hezkuntza globala bultzatzea, 2030 Agendan bildutako 4.7 jomugan (*Garapen jasangarrirako hezkuntza globala*) ezarritakoa kontuan izanda eta garrantzi berezia emanda ekintzen kalitatea hobetzeari, hezkuntza benetan eraldatzailea izan dadin lortze aldera.
- 2.-Jasangarritasunaren alorrean antolakuntza- eta hezkuntza-kalitateko eredu berriak lortzera bideratutako metodologiak garatzeko bideen ikerketa erraztea.
- 3.-Jasangarritasunerako hezkuntzaren arloko prestakuntza, ezagupen-kudeaketa eta trebakuntza bermatuko duten mekanismo eta baliabideen garapena bultzatzea, eta horretarako, hezkuntza- eta toki-komunitatea garapen jasangarrian konprometitzeko gaitzea.
- 4.-Hezkuntza-komunitatean jasangarritasunaren arloko lankidetzak, ezagutza-trukea eta jardunbide egokiak sustatzea, baita esparru horretan lankidetzarako eta ezagupen-kudeaketarako mekanismoak garatzea ere.
- 5.-Jasangarritasunera bideratutako kulturarteko trukea sustatzea, eta, horretarako, ezagutzak partekatze eta esperientziak trukatzeko sinergiak sortzea EAEko ikastetxeen eta jasangarritasunaren esparrua osatzen duten arloetan diharduten beste zentro eta eragile batzuen –nola nazionalen hala nazioartekoekin– artean.
- 6.-Ikastetxe Jasangarriaren zigiluarekin egiaztatutako ikastetxeen lana aitortzea.
- 7.-Hezkuntza ez-formalaren esparruan jasangarritasuneko kompetentzien garapena indartzea.

**EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA**

Ingurumen Jasangarritasuneko  
Sailburuordetza  
Natura Ondare eta Klima Aldaketa  
Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y  
MEDIO AMBIENTE**

Viceconsejería de Sostenibilidad  
Ambiental  
Dirección Patrimonio Natural y Cambio  
Climático

#### 4.- BESTE AUKERA BATZUK, ARAUDIAREN ESPARRUKOAK ETA ARAUDIAZ BESTELAKOAK.

Dekretu-proiektuaren bidez jasangarritasunerako hezkuntza bultzatu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan, 2030 Agendan bildutako 4.7 jomugan ezarritakoa kontuan izanda (*Garapen jasangarrirako hezkuntza globala*) eta garrantzi berezia emanda ekintzen kalitatea hobetzeari, hezkuntza benetan eraldatzailea izan dadin.

Klima-larrialdiko egungo testuinguruan, ingurumen-jasangarritasunerako hezkuntza da gizartearen ohiturak aldatzeko eta ekintza eraldatzaile ekosozial hori sustatzeko bideari ekiteko gotorleku nagusia.

Beraz, guztiz beharrezkotzat jotzen da arau bat garatzea, lortu nahi den bultzada eman dezan eta egungo antolaketa-ereduaren aldaketarako oinarriak ezar ditzan, aldaketa horrek aukera emango baitu modu eraginkorragoan funtzionatzeko, eskuragarri ditugun baliabide guztiak modu koherenteagoan baliatuta eta aldaketa horretarako beharrezkoak diren eraldaketa teknologikorako prozesuez eta gaikuntzarako eta ezagutzaren kudeaketarako azpiegituz lagunduta; ez dugu ikusten beste inolako irtenbide alternatiborik.